# NAhitA

Abril 2017ko Apirila
Nº 31.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpen
Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua



## 25 URTE AÑOS

## grupo IZARRAITZ taldea

%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

EZAGUTZEN DUZU?

**NAHITA -** ALDIZKARIARIAREN INGURUKO INKESTA

¿CONOCES?

**CHRYSALLIS -** ASOCIACIÓN DE FAMILIAS DE MENORES TRANSEXUALES

# PROGRAMA «ESCUELA DE EMPODERAMIENTO»
# «JABEKUNTZA ESKOLA»ren EGITARAUA

## ANTZERKIA JABEKUNTZARAKO TRESNA GISA (II. ATALA) (12 ORDU)
## TEATRO COMO HERRAMIENTA DE EMPODERAMIENTO (II. PARTE) (12 HORAS)

4, 11, 18, 25 de mayo y 1 de junio, JUEVES, de 17:15 a 19:15

**Irakaslea: Miriam Herbón Matrikula:5 Euro**

Analisi feminista aldaketarako tresna gisa hartzea ez da kontzeptu berria, baina behar beharrezkoa izaten jarraitzen du mugimendu feminista eta haren borrokarentzat. Tailer honetan antzerkia bere erabilera anitzetan baliatuko dugu ahalduntzeko tresna bezala. Elkarrizketen, akotazioen, interpretazioaren eta antzerki munduko beste elementu batzuen analisiaren bitartez, emakumeoi patriarkatuaren menpe jarraitzeko eman ohi zaizkigun rol indibidual eta kolektiboak aztertuko dira. Era berean, lan berri bat sortuko dugu eta ahalduntzearen bitartez eszenatokira igo eta antzezlana interpretatzeko indarrak batuko ditugu.

El concepto del análisis feminista en el teatro como herramienta de cambio no es nuevo, pero sigue siendo fundamental para el movimiento feminista y su lucha. En este taller utilizaremos como herramienta el teatro en sus múltiples utilidades. Mediante el análisis de diálogos, acotaciones, interpretación y otros elementos del hecho teatral iremos desgranando que tratamiento se les da a las mujeres en su papel individual y colectivo para que esté al servicio de la perpetuación del patriarcado, al tiempo que creamos una obra inédita y gestamos la fuerza desde el empoderamiento para subirnos al escenario a interpretarla.

## ZORU PELBIKOAREN ZAINTZA (8 ORDU)
## CUIDADOS DEL SUELO PÉLVICO (8 HORAS)

16, 23 y 30 de mayo, MARTES, de 18:00 a 20:00h

**Irakaslea: Hazia Fisioterapia Matrikula:5 Euro**

Tailer honen helburuak sexualitatearen eta osasun femeninoaren tabuak ezabatzea, zonalde pelbikoaren zaintza hobetzea eta zoru pelbikoaren tonua eta indarra hobetzeko beharrezko ariketak egiten ikastea dira. Horrekin batera, gure gorputz eskema hobetuko dugu eta zoru pelbikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeen eguneroko ekintzak identifikatuko ditugu.

El objetivo del taller será eliminar los tabúes sobre la sexualidad y la salud femenina, mejorar los cuidados de la zona pélvica y aprender los ejercicios necesarios para mejorar el tono y la fuerza del suelo pélvico. Junto a ello mejoraremos el esquema corporal evitando acciones de la vida diaria que son lesivas para el suelo pélvico.

## EMAKUMEEN ETA FEMINISMOAREN AZTARNAK ERMUAN: MEMORIA ETA HIRIGINTZA BETAURREKO LILEKIN (5 HORAS)
## HUELLAS DE MUJERES Y DEL FEMINISMO EN ERMUA: LA MEMORIA Y EL URBANISMO CON GAFAS LILAS (5 ORDU)

12 de mayo, VIERNES, de 17:30 a 20:00; 13 de mayo, SÁBADO, de 10:30 a 13:00

**Irakaslea: Zaida Fernández Matrikula:5 Euro**

“Emakumeen eta feminismoaren aztarnak” proiektua ezagutzen duzu? Tailer honetan Basaurin, Ondarroan, Errenteria, Eibarren eta Ermua bezalako herrietan egindako lan prozesuak konpartituko ditugu eta besteak beste, memoriaren, hirigintzaren eta generoaren arteko erlazioaz hausnartuko dugu, metodologia dinamiko eta parte hartzaileen bitartez.

¿Conoces el proyecto “Huellas de Mujeres y del Feminismo”? en este taller compartiremos los diversos procesos de trabajo que se han realizado en municipios como Basauri, Ondarroa, Errenteria, Eibar y Ermua y reflexionaremos, de forma dinámica y participativa, sobre la relación entre memoria, urbanismo y género, entre otros.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES**

**KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: Ekainak 17 / 17 de junio**
**LEKUA / LUGAR: Izkiko Parke Naturala (Araba) / Parque Natural de Izki (Álava)**



BERDINTASUNEKO UDAL KONTSEILUA · CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK · ASOCIACIONES
SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK · TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK... ETA ABAR · CHARLAS... ETC.

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Más información en la microsite de Igualdad / Informazio gehiagorako:
http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp
Teléfono y correo electrónico de la Casa de la Mujer / Emakumeen Topalekuko telefonoan edota posta elektronikoan:
Tfnoa: 943 17 10 30 · e.posta: igualdad2@udalermua.net

# editorial

1991tik ari zen garatzen Emakumeen Sustapenerako Zentroan, eta 1992ko martxoan, emakume-talde bat eszenatokira igo zen, lehen aldiz, amestutako ametsa betetzera: antzerkia egitea.

Izarraitz Zuria izenez, eta Ricardo Combiren zuzendaritzapean, Requiem por Antonio Paniagua, "El velatorio" obraren bertsio librea, antzeztu zuten. Arrakasta sekulakoa izan zen. "Ez dago sarrerarik" txartela eskegi behar izan zuten eta saio estrak egin, beraien publikoaren interesa asetzeko. Honek txalorik beroenak eskaini zizkien. Geroago "Lysistrata" edo "La casa de Bernarda Alba", jaialdiak, sariak… eta askoz obra gehiago etorri ziren, herriko talde eta udal sailekin egindako muntaia eta ekintzez gain, horien artean Berdintasun Saila, zeinaren babesa eta laguntza beti izan duten.

Taldearen zuzendaritza-eginkizunetan, Combi-z gain, Rosa Martínez eta Alain Kortazar aritu dira, eta azken hori izan da omenaldi honetan zuzendu dituena. Baina, zalatzarik gabe, taldearekin gehien-gehien bat egin zuena eta beraiekin guztiekin maitasun handia konpartitu zuena Juan Carlos Colina izan zen. Berarekin nahiko zuketen interpretazioaren munduan zehar egin duten ibilbideari azkena eman, baina halabeharrak beste gauza bat erabaki zuen.

25 urteotan asko izan dira, presentzia gehiagoz edo gutxiagoz, abentura honetan parte hartu dutenak eta hementxe aipatuko ditugu, gure aintzatespen guztia merezi dutelako: Alfonsa, Asun, Begoña, Blanqui, Emi, Espe, Eulali, Feli, Inés, Isi, Julita, Kirina, Mariák, Manoli, Maricarmen, Marixabel, Marijose, Maripaz, Maritere, Marisol, Merche, Marce, Maríajesus, Mercedes, Nasta, Piedi, Pili, Socorro, Virginia eta Susanak. (Barkatu, mesedez, norbait, nahi gabe, izendatu ez badut).

2017ko martxoan, antzerkian egin duten bidaia laburbiltzen duen obra antzeztuz eman diote amaiera bikaina beraien ibilbide eta zilarrezko ezteiei, Juancar, "beraien zuzendari maiteari", hilik jada, omenaldi sentikorra eginez.

Emakume saiatuak, buruan beraien askatasun-espazioa zabaltzea zutela, garaileak, denbora eta ahalegin handia eskatu dien ekintza batean gogo handiz erabat sartu zirenak, baina beste azal batzuetan, beste pertsonaia eta bizitza batzuetan sentitzearen gozamena hartu dute ordainetan, eta guregan barrea, negarra eta kantua sorrarazteko gai izan dira. Eskerrik asko gure aurrean ikusgai jarri zaretelako eta gurekin konpartitzeagatik.

Zorionak guztioi eta zorte on hemendik aurrerako zuen bideetan.

Se venía gestando desde 1991 en las aulas del Centro de Promoción de la Mujer, y en marzo de 1992, por primera vez, un grupo de mujeres se subió a un escenario, decididas a cumplir el sueño que se habían atrevido a soñar: hacer teatro.

Con el nombre de Izarraitz Zuria y dirigidas por Ricardo Combi representaron Réquiem por Antonio Paniagua, una versión libre de "El velatorio". El éxito fue clamoroso. Se colgó el cartel de "no hay entradas" e hicieron sesiones extra para saciar el interés de su público, que les brindó su más encendido aplauso. Luego vinieron "Lysistrata" o "La casa de Bernarda Alba", festivales, premios… y muchas obras más, además de montajes y actos en colaboración con colectivos y departamentos municipales, entre ellos el de Igualdad, con cuyo patrocinio y apoyo han contado siempre.

En las labores de dirección del grupo se han implicado, además de Combi, Rosa Martínez y Alain Kortazar, quien las ha dirigido en este último homenaje. Pero, sin duda, quien más se fundió con el grupo y que compartió un cariño inmenso con todas ellas, fue Juan Carlos Colina. Con él hubieran querido cerrar su trayectoria en el mundo de la interpretación, pero el destino decidió otra cosa y no pudo ser.

En estos 25 años han sido muchas las que, con mayor o menor presencia, han formado parte de esta aventura, y las nombramos aquí porque se merecen todo nuestro reconocimiento: Alfonsa, Asun, Begoña, Blanqui, Emi, Espe, Eulali, Feli, Inés, Isi, Julita, Kirina, Marías, Manoli, Maricarmen, Marixabel, Marijose, Maripaz, Maritere, Marisol, Merche, Marce, Maríajesús, Mercedes, Nasta, Piedi, Pili, Socorro, Virginia y Susanas. (Perdón si cometo alguna omisión involuntaria).

En marzo de 2017, con la representación de una obra que resume su periplo teatral, han puesto el broche final a su andadura, sus bodas de plata, al mismo tiempo que brindaban un sentido homenaje a Juancar, "su querido director", ya fallecido.

Mujeres tenaces, empeñadas en ampliar su espacio de libertad, triunfadoras, que con muchas ganas se metieron de lleno en una actividad que les ha robado tiempo y esfuerzo, pero les ha colmado con el placer inmenso de sentirse en otras pieles, en otros personajes y otras vidas, y se han sentido capaces de hacernos reír, llorar y cantar. Gracias por exponeros y por compartirlo.

Felicidades a todas, y como se dice en el argot, "mucha mierda" para el resto de vuestros caminos.

# EZAGUTZEN AL DUZU...?

# ¿CONOCES?

## ENCUESTA NAHITA

**Hamargarren urtemugan, hemen eskaintzen dizugu NAHITA aldizkariaren inguruko inkestaren emaitzen laburpena. Eskerrik asko erantzun duzuen guztioi, aldizkaria hobetzen laguntzen diguzuelako.**

*Azkenik, 13 pertsonak nahiko lukete aldizkaria idazten parte hartu: 2 gizon eta 11 emakumeri gustatuko litzaieke aldizkaria etxean jasotzea eta 10 emakumek eta gizon 1ek daukate aldizkaria posta elektronikoz jasotzeko interesa.*

Te ofrecemos aquí un resumen de los resultados de la encuesta sobre la revista NAHITA, en su décimo aniversario. Gracias a todas las personas que, con sus respuestas, nos ayudan a mejorar.

Se han recibido un total de 74 encuestas, hechas por 59 mujeres y 15 hombres. La mayoría se han respondido vía online, 56, frente a 18 que se han rellenado en formato papel.

Casi el 42% responde que la lee completa, mientras que un 29,73% dice leer solo algunos apartados y otro 21,62% indica que la suele ojear. Al 38,46% de personas les llega la revista a través de la Casa de la Mujer.

Eta beste %23,08ak dio udaletxean edota beste udal zerbitzu batzuetan hartzen duela. %27,69ak herriko saltoki eta lokaletan hartzen du, eta %23,08ak posta arruntez jasotzen du. Paperean gehiago irakurtzen da formatu digitalean baino.




Lo más interesante: Reportaje, Editorial, Kale-inkesta, Programación y Noticias. Interes gutxien duena: Denborapasak

Más del 75% opina que el número de páginas actual de la revista es suficiente. La mayoría encuentra los contenidos y temas interesantes y útiles; y más del 80% no desearía que la revista se editara solamente en versión digital.

Informazio gehiago nahi izanez gero:
**http://www.ermua.es/pags/index/ca_detallenoticia.asp?id=7944;**

# ¿CONOCES?

# EZAGUTZEN AL DUZU...?

## CHRYSALLIS

### ASOCIACIÓN DE FAMILIAS DE MENORES TRANSEXUALES

### ADINGABEKO TRANSEXUALEN FAMILIEN ELKARTEA

La asociación está integrada por familias de niños, niñas y adolescentes transexuales, que conocen bien las dudas, los miedos y las dificultades que enfrentan en el entorno familiar, educativo, social, sanitario e incluso legal. Por eso no quieren sufrirlo en soledad. Ofrecen apoyo e información, y comparten esperanzas, ilusiones y alegría, porque consideran que el contacto entre las familias y las personas es muy importante y crea referentes fundamentales.

Chrysallisek laguntza, dokumentazioa, informazioa, kontaktuak… eskaintzen ditu, pertsona horien familian, ikastetxean, gizarte eta osasun-ingurunean sortzen diren arazoak konpontzeko, bai eta lege-aldetik azal daitezkeenak ere. Umeek beraiek bezalakoak diren beste batzuekin elkarreragin dezakete, horrela "hain bitxi" ez sentitzeko.

Afirman que los niños, a veces, tienen vulva y que algunas niñas tienen pene. Y reconocen que aquel autobús que alguien se apresuró a fletar con el mensaje contrario, pidiendo que no te engañaran, ha tenido un impacto enorme. Todo el mundo habla… y debemos escuchar a lxs protagonistas: las niñas con pene y los niños con vulva.

Badakite bide luzea dagoela aurretik gizartearen ikuspegia aldatzeko, eta aldaketa hori informazioa emanez bakarrik eragin daitekeela, horregatik zeresan ugari eman duen kanpaina bat jarri zuten martxan, -gutxi informatutako talde atzerakoiak gorabehera- lehen ukatua zen errealitatea begi-bistan utziz eta eztabaida handia sortuz.




Informazio gehiago:
**http://chrysallis.org.es/**



# BULBA ALA ZAKILA?

## BI SEXU-BI GENERO... ALA GEHIAGO?

# ¿VULVA O PENE?

## DOS SEXOS-DOS GÉNEROS... ¿O MÁS?

**A pesar de que cualquier desviación del modelo hegemónico se sanciona todavía con la marginalización y hasta con la persecución, cada vez es mayor la visibilidad de las personas trans, lo que permite el cuestionamiento de la monosexualidad como estructura social y facilita la autoexpresión de las múltiples identidades existentes.**

Neskatoz eta mutikoz hitz egiten dugu, emakumez eta gizonez, genero femeninoaz eta maskulinoaz, gizon- eta emakume-taldez, edo mistoz, sexu femeninoz eta maskulinoz, sexu nortasunez, transexualitatez, transgeneroz… eta sarri hitz horietan galdu egiten gara edo inertziaz hitz egiten dugu, errealitate ezberdinak adierazi nahian horiek (gaizki) erabiliz. Ezjakintasun handia dago gai honen inguruan, horregatik ideia eta hausnarketa batzuk proposatzen dizkizuegu, "ohiko estiloarekin" identifikatzen ez diren eta bertan sailkatzen ez diren pertsonentzat mingarriak diren kanpainak, modu atzerakoian, aurrera eramaten dituzten horiei aurre egiteko.

### IDENTIDAD SEXUAL, TRANSEXUALIDAD, TRANSGÉNERO... ¿SABEMOS QUÉ SIGNIFICA CADA TÉRMINO?

Para empezar, sexo y género, NO son lo mismo.

Si naces con un sexo biológico de niña-hembra, socialmente se te coloca (y se te educa) en el género femenino; se espera de ti que te comportes como mujer (género femenino). Si naces con un sexo biológico de niño-macho, socialmente se te adjudica el género masculino; se espera de ti que te comportes como hombre (género masculino).

Pero… ¿hay solo dos sexos y dos géneros?, ¿hay personas que nacen con un sexo no clasificable según este modelo binario y excluyente?, ¿hay niñas con pene y niños con vulva? La respuesta es sí.

**Se han creado muchos estereotipos que discriminan, aíslan y estigmatizan a las personas que no responden a las clasificaciones socialmente aceptadas, que las colocan en una posición de vergüenza y las califican como 'nocivas': lo que te pasa es que no sabes lo que quieres, lo tuyo es vicio, es una enfermedad...etc.**

**El monosexismo, en nuestra sociedad, confiere posición de privilegio a las personas con una orientación sexual monosexual (ya sea heterosexual u homosexual) y, por tanto, supone mayor discriminación hacia aquellas personas que no lo son (bisexuales, pansexuales u omnisexuales).**

En sentido general, son reconocidos dos sexos, y por tanto, dos géneros (es un sistema dicotómico y jerarquizado, donde lo masculino prevalece sobre lo femenino). Sin embargo, existen personas que nacen con un sexo que no responde ni a hembra ni a macho, personas intersexuales, transgénero, personas que no se identifican con el género atribuido... Es decir, que hay otras realidades que vienen a mostrarnos que las personas somos diversas. ¡Infórmate!

## LEHENENGO GAUZA IZENA EMATEA DA (ZEREN IZENA DUENA, BADA)

CISGÉNERO, QUEER, MONOSEXUAL, PANSEXUAL, BIFOBIA...

Egun, guztiz zalantzagarriak dira sexuaren eta generoaren kontzeptuak eurak, eta trans pertsonen ikusgaitasuna, genero bitarrekoak, ez bitarrekoak zein a-generokoak direla, gero eta handiagoa da. Horrek zalantzan jartzera darama sexubakartasuna gizarte-egitura moduan, eta egun diren sexunortasun ugarien adierazpena agerian jartzen laguntzen du.

Este reportaje no pretende dar a conocer de forma exhaustiva todo el universo sobre el que estamos tratando, sino aportar y distinguir algunos términos concretos, y –sobretodo- reconocer y valorar la diversidad.

## 1. CISGÉNERO - CISEXUALIDAD

Son términos escasamente conocidos y utilizados a menudo en forma abreviada (CIS).
El prefijo "cis-" en latín significa "de este lado", y se opone a "trans-" que significa "del otro lado".
CIS = NO TRANS
Cisgénero: se utiliza en el campo de los estudios de género para describir a personas cuya identidad de género y género asignado al nacer coinciden: personas que **no se identifican como transgénero.**
Cisexualidad: se utiliza para describir la sexualidad de personas que **no se identifican como transexuales.**

## 2. QUEER

En inglés, "extraño", o "poco habitual".
Viene a definir a quienes no son heterosexuales ni de género binario. Para algunas autorías, el término tra-



ta de designar a un «movimiento post-identitario» y crítico. Para otras, sirve para describir una orientación sexual, identidad de género o expresión de género que no se conforma con la sociedad heteronormativa. Una de las luchas de los movimientos 'queer' es romper con el propio concepto de género, para superarlo.

## 3. MONOSEXUALIDAD - BISEXUALIDAD... Y MÁS

El término monosexualidad coloca en la misma categoría a la homosexualidad y a la heterosexualidad, y define las relaciones erótica-amorosas con un solo género (ya sea del mismo "homo" o del otro "hetero").
Los antónimos (contrarios) al término "monosexual" serían bisexual, que hace referencia a la posibilidad de relacionarse erótica o emocionalmente hacia dos géneros o más, y pansexual (u omnisexualidad), la atracción sexual hacia todos los géneros.

## SEXU-NORTASUNA. ESTEREOTIPOAK ETA FOBIAK

Bizi garen munduan onargarria heteroarauemailetasuna da, harreman sexu-afektiboen eredu baliodun bakar legez ezartzen zaiguna eta gizartearen funtzionamendurako beharrezkoa. Eredu horretatik aldentzen den edozein eredu zigortu egiten da oraindik, baztertuz, ezkutatuz, eta jazarriz.
Oraindik badaude fobiak eta erasoak aniztasuna suposatzen duen guztiarekiko, eta badira talde batzuk, estatuko kontserbadurismo zaharra lagun, gorrotozko mezu mingarriak zabaltzen dituztenak, beste errealitate hori bizi duten neskato-mutikoen kontra. Aintzatespena eta errespetua merezi dute eta ezin dugu halakorik onartu.
La lucha feminista y de los movimientos sociales llamados "LGTBI" han puesto en cuestión la estructura heteropatriarcal hegemónica. Aun así, quedan cuestiones muy arraigadas en nuestra sociedad y en nuestro lenguaje; fobias que generan violencia y que pueden ser muy sutiles y a menudo negadas, pero que conllevan aislamiento, miedo, depresión o estigmatización para las personas y a las que tenemos que hacer frente. No lo podemos tolerar.

# KALE INKESTA

Galderak

**En el año 1993, se conformó el grupo de teatro Izaraitz Zuria, formado íntegramente por mujeres. 25 años después se han despedido, celebrando sus bodas de plata sobre las tablas.**
**1993.urtean Ermuko emakume talde batek Izarraitz Zuria antzerki taldea eratu zen. 25 urteren ostean, taldeak agur esan digu, zilarrezko ezteiok taula gainean ospatuz.**

1. **¿Sabes cuál fue el origen del grupo de teatro de mujeres Izarraitz y cuándo empezaron? Bal al dakizu Izarraitz emakumeen antzerki taldea noiz eta nola sortu zen?**
2. **De las obras que han interpretado, ¿a cuántas has asistido? ¿Cuál es la que más te gustó? Antzezlan guztietatik, zenbatetara joan zara? Zein gustatu zitzaizun gehien?**
3. **¿Crees que la existencia de un grupo de teatro de mujeres como éste ha dejado una huella de igualdad en nuestro municipio? Honakoa bezalako emakume antzerki talde batek gure herriko berdintasunean aztarna utzi duela esango zenuke?**

## MAXI HERNÁNDEZ MORATINOS, 70 AÑOS



1. Empezaron hace 27 años. Eran un grupo de amigas que les gustaba el teatro y con la ayuda del director de entonces, formaron el grupo.
2. He asistido a tantas… Me encantó la obra de la que no recuerdo bien el nombre. Me divertí mucho con el papel de policía. ¡Cómo nos reímos!
3. Si, fue el primer grupo de teatro de mujeres. Han dejado huella de igualdad porque han sido valientes, decididas, activas y han estado muy unidas. Además, algunas participaron en los cursos del Centro de Promoción de la Mujer.

## MARISABEL GARITAGOITIA 77 AÑOS



1. Orain dela 25 urte inguru. Ermuko Emakumeen Sustapenerako Zentroan ikasle izandako emakume talde batek sortu zuen taldea.
2. Askotan joan izan naiz. Lehendabiziko antzezlana gogoratzen dut, 'Réquiem por Antonio Paniagua'. Ikasle Izandakoen Elkarteko beste emakume batzuek ere parte hartu genuen, antzerkiari sarrera ematen.
3. Hazkunde pertsonala sustatu duela esango nuke, konpromisoa hartu eta oholtza gainean antzerkia egiteko ausardia badutela erakutsi dutelako.

## MARGA PÉREZ BARRIO 51 AÑOS



1. Si, sé que empezaron hacen 25 años.
2. ¡A tantas como he podido! Recuerdo de manera especial 'La Casa de Bernarda Alba', pero también, 'Réquiem por Antonio Paniagua', 'Lísitrata', 'Entre tinieblas', 'Las chicas de la banda',… y muchas otras.
3. Desde luego, ha sido un grupo para el empoderamiento individual y colectivo de muchas mujeres, que han tomado un compromiso social con el teatro y la cultura.

## RAFI LEÓN 58 AÑOS



1. Creo que empezaron hace 25 años.
2. No recuerdo muy bien los nombres de las obras, pero he ido a varias. Nos hemos reído mucho con ellas.
3. Por supuesto, han sido las primeras del municipio, se lo propusieron y lo consiguieron.

# 7 AKATS... NON?
# ENCUENTRA LAS 7 DIFERENCIAS

## IMPRONTA
Natalia Arrieta y Rosa Basoa





# NOTICIAS DE INTERÉS
# ALBISTE INTERESGARRIAK

## JAURTITZE LUZEKO VII. TXAPELKETA NAZIONALA: MORENOK URREA ETA GORRITXATEGIK BRONTZEA XABALINA

Arantza Moreno Fernández eta Leire Gorrotxategi Conde atletak distiratsu atera ziren Badajoz probintzian ospatu zen Espainiako eta jaurtitze luzeko VII. Negu Txapelketan. Arantza Moreno Fernándezek (Bartzelona KEko kidea) Espainiako neguko txapeldun tituluari eutsi zion, asteburuan Montijon jokatu den txapelketan, 600 gramotako jabalina jaurtiketan. Bartzelona Taldeko atletak garaipena lortu zuen jaurtiketa onenean jabalina 50 metro eta 85 zentimetrora jaurti ondoren. Arantza sailkapen orokorreko lehen sailkatua izan zen, bigarren jaurtiketan 50,85 metroko marka ezarri ondoren. Eta horrekin batera, hirugarren postua Leire Gorrotxategi Conde ermuarrak eta Bidezabal taldeko kirolariak lortu zuen, 41,72 metroko jaurtiketa erregistratuz. Laburbilduz, bi domina oso baliotsuak. Harro egoteko moduko emaitzak ekarri dizkigutenak atleta ermuar biak. Zorionak! Informazio gehiago: *http://www.ermua.es/pags/index/eu_detallenoticia.asp?id=7937*

## EMAKUNDE CONVOCA TRES BECAS DE INVESTIGACIÓN EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha convocado tres becas de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2017 por valor de 69.999 euros. Se trata de tres tipos de becas, cada una de las cuales se corresponde con un diferente trabajo de investigación. Dos de ellas tienen por objeto orientar e impulsar la formación de las futuras personas becarias hacía ámbitos y temas de investigación emergentes en el contexto de las relaciones de género y contribuir a favorecer el cambio de valores en nuestra sociedad. Y la tercera intenta responder a la necesidad, ampliamente reconocida, de avanzar tanto en el análisis como en la respuesta a las necesidades de los colectivos de mujeres en riesgo o situación de discriminación múltiple. Más información en *http://emakunde.blog.euskadi.eus/2017/04/emakunde-convoca-tres-becas-de-investigacion-en-materia-de-igualdad-de-mujeres-y-hombres/*

## IRUDIEKIN ETA ISLEKIN OSPATU ZUEN ERMUAK EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8an Natalia Arrieta eta Rosa Basoa kideek egindako Jabekuntzarako Argazki-Collagea estreinatu zen. Kioskoaren inguruan kokatutako muralek osatzen dute collagea, eta horrela definitu dute: "Berdintasunezko gizarte baterako bidean emakumeek uzten duten aztarna islatu nahi izan dugu. Bide horretako motor gisa hankek duten garrantziari eman diogu indarra. Gainera, aurkezten diren irudiak eta benetako irudiak islatzeko gai den materiala erabili dugu obra hau sortzeko, unean bertan irudiak harrapatu eta obrari instalazio itxura emanez. Horrela, lana uneoro aldatzen ari da, eta ekitaldira gerturatu diren emakumeen hankak ere obraren parte izan daitezke". "Muraleko irudiek emakumeek arlo desberdinetan duten borroka islatzen dute. Bestalde, erdialdeko kartelean, irudi fresko bat azaldu nahi izan dugu, askatasun sentsazioa ematen duena. Horretarako, aukera amaiezinak dituen zeru batera zabalik dagoen leihoaren sinbolismoa erabili dugu". Informazio gehiago: *https://www.ermua.es/pags/index/eu_detallenoticia.asp?id=7926;*

## LA CASA DE LA MUJER DE ERMUA EN EL 'MAPEO FEMINISTA'

La Casa de la Mujer de Ermua se ha unido al 'Mapeo Feminista' creado por Femiagenda, una plataforma digital que tiene como objetivo compartir eventos y dar a conocer colectivos y proyectos feministas. Esta red de recursos reúne más de 200 colectivos, espacios, librerías, centros de formación, organismos institucionales y otros servios. A través del mapa se quiere crear un espacio de encuentro e intercambio en el que los colectivos puedan da a conocer su trayectoria, visitar otros colectivos y  realizar acciones conjuntas para reforzar y ampliar la lucha feminista. Si quieres incluir tu organización en el mapa, puedes hacerlo mandando el enlace de Google Maps por email a *femiagenda@gmail.com* o accediendo a *https://femiagenda.org/recursos/mapeo-feminista/*

## BADAGO ESKURAGARRI 'SEXUALITATEAREN KOLOREAK' GIDA

Martxoaren 22an Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bizkaiko Foru Aldundiaren Behatokiarekin elkarlanean egindako 'Sexualitatearen Koloreak' gida aurkeztu zuen. Gida honek aniztasuna zeharkako balore gisa txertatu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera aurrerapausoak ematea du helburu. 'Sexualitatearen Koloreak' gida EGKren webgunean *(http://bit.ly/2mTT9Z4)* aurkitzen da, hezkuntza arloko edozein eragile nahiz gaztek eskura izan dezaten. Hau esanda, 'Sexualitatearen Koloreak' gida ezagutu, kontsultatu eta erabiltzera animatu nahi zaituztegu, zuentzat erabilgarria izango delakoan.

## ENCUENTRO DE FIN DE CURSO DE LAS ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO, EN DURANGO

La red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia celebrará el 3 de junio el Encuentro de Fin de Curso en Durango. El encuentro de este año tratará el tema de las "fiestas paritarias" y para ello se organizarán actividades que nos harán disfrutar durante todo el día. Si estás interesada en asistir y quieres más información acércate a la Casa de la Mujer de Emua.




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo, Andrea Díez

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central Badiola

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
*Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.*



*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
*Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.*



**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net · web: www.ermua.es
https://www.facebook.com/#!/igualdadERMUA/?fref=ts



Depósito Legal: BI-243/2010